

**DISONANTZIA EGOERAK: ESATETIK EGITERA DAGOEN TARTEA
TALDEETAN ESANDAKOAK**

Dinamizatzaileak: Nerea Arrese (Emun), Miren Segurola (UEMA)

[Bideoa](#): Joxpi Irastortza (HUHEZI)

Euskararekin edo beste arlo batzuetan izandako esperientziak**EUSKARA**

Gogoeta saioen bidez aldaketak bultzatzeko saiakerak lantzen ari dira Hernaniko udalean. Pertsona baten aldaketak taldearen aldaketa dakar eta beraz, **eusle batzuk** behar dira aldaketa eragiteko. Eusle bakoitzak bere konpromisoa dauka talde mailako konpromisoaren barruan. Hasierako emaitza ona izan da, baina portaera hori iraunkor izan dadin zer behar da? Hasieran bai, baina gero nola jarraitu eusten?

Ikastetxean euskara bakarrik ematen da. Baina irakasleek aukera txikiena daukatenean, gaztelaniaz aritzen dira. Beraz, **kontzientziarekin lotura handiagoa** dauka erabilerak, **egiturarekin baino**.

Borroka indibidualean bizi den kidearen kasua. Guraso taldean, erosketak egiterakoan... etengabe ari da euskaraz egiteko saiakeran eta nekea sortzen du ahalegin horrek sarritan. Etxean ere egoera hori bizi du. Bikotearekin (gurasoen artean), biek euskaraz jakin arren, gaztelaniara jotzen du. Saiatzen da eusten baina gaztelaniara pasatzen dira. Alabarekin ere, euskaraz egin nahi duen arren, gaztelaniara jotzen du, komunikazio egokiagoa izateko asmoz, hobeto moldatzen delako gaztelaniaz. Berak euskaraz erdizka egin arren, **beti saiatzen da egiten**, baina jendeak erdaraz erantzuten dio. **Nekagarria da norberak nahi izan arren, inguruak laguntzen ez badu**.

Unibertsitateko lankide talde batean 7tik batek ez du euskaraz hitz egiten, baina ulertu egiten du. Berak gaztelaniaz egiten du, baina ingurukoek euskaraz egiten diote. Ez duenean zerbait ulertzen, galdetu egiten du. Era horretako komunikazioa normalizat jotzen dute lan taldean eta beraz, euskaraz egiten dute euskaraz egin nahi duten lankideek.

Euskal Giroitze Barnetegian maitasuna da harremanetarako elementua. Maitasuna baldin badago ingurukoekiko harremanean, denborarekin ingurukoak euskarara etorriko dira. Haurrekin funtzionatzen du, eta helduekin ere funtzionatuko du. Haurrei **ez diete esaten euskaraz egiteko, baina begiraleak berak euskaraz egiten die eta maitasunez egiten duenez**, azkenean haurrak euskarara etortzen dira. Agian denbora asko behar da euskarara etor dadin, baina momenturen batean etorriko da.

Lekeition arnaguneen tailerra landu dute. **Talde txiki bat egoeraz jabetu eta maila kolektiboan eragin beharra ondorioztatu** zuen. Jendearekin hitz egiten hasi ziren eta 60 lagun elkartzea lortu da. Eusle paperaren figuran **60 kontzientziadun (arnaguneen tailerraren bidez) beraien inguruan eragiten ari dira**, eremu ezberdinetan eraginetan.



Inguru hurbilean eragiteko saiakera egin da. Kalera atera dute, arreta deitzeko, bideo bat sortu dute... Gerta liteke bizi osoan euskaraz naturaltasunez bizi izan denak, kontzientziarik ere ez landu izana, eta momentu baten ez erabiltzera pasa ondoren, berriz egitera itzul dadin lanketa behar izatea. Lanketaren bidez hasi dira ikusten euskaraz nahi bai, baina... gero ez dutela egiten.

Lekeition gazte taldeetan denek dakite euskaraz baina erdaraz egiten hasi dira. Zergatik salto hori? Zer gertatzen da hor? **Liderrak** lotu behar ditugu jauzi hori egin ez dezaten eta **inguruan eragina izan dezaten? Baina** epe luzera agian ez du eraginik izango bide horrek, **norberak nahi izan behar du**.

Euskara erabiltzeko konpromisoa hartu bai, baina betetzen ez dugunean zer egin? Norberak jakin behar du zergatik egin nahi duen euskaraz. Zergatik egin behar dut? - Akaso ez da galdetu behar, "hemen horrela egiten da eta horrela egingo dut".

Lankideekin eta lagun taldekoekin hizkuntza ohiturak aldatzea lortu dute. **Gutxi batzuk** izan dira **gainerakoengan eragin** dutenak. Ez dute erabateko aldaketa kolpetik egin. **Tarteko urratsak** eman dituzte eta horiek **ingurukoekin partekatu dituzte, lorpen gisa** azpimarratuta. Ingurukoak ere parte ginez, beraien portaera egokitzen joan dira.

Lantokiko departamentu bateko hainbat lankideren hizkuntza portaera aldaketa bultzatzeko, **aldaketaren arrazoieta jarri dute arreta**. Gutxiago dakiten beste lankide batzuei erabilera laguntzeko eskaera egin diete. Aitzakia horrekin (helburu egokia iruditu zaie **besteei laguntzeko** ahalegina egitea) **lortu dute beraien portaera aldatzea**. Beraien aldaketari **probetxua ikusi** diote.

Hizkuntza aholkularia izanda, bere portaera koherente izaten saiatu da kidea. **Lanbideak bultzatutako portaerak** sortu ditu. Gainerakoei zabaltzen dien horrekin **koherente agertzeko saiakera** egiten du bitzita pertsonalean, besteekin harremanetan dagoenean.

BESTELAKO ARLOAK

Kirola egin behar zuela pentsatu eta egiten hastea lortu zuen pertsona. Eginez lortu zuen. Korrika **egiten hasita lortu** zuen bere burua kirola egiten irudikatzea, **nahia sendotzea**.

Osasun arloan Precede-procede metodologia erabili izan da. Gazteek preserbatiboak erabiltzea da helburua, horretarako konbentzitzea. **Aurreiritziak desaktibatzen** dituzte lehenengo, eta gutxienez **behin erabiltzea lortu** nahi dute. **Praktika positibo bat** lortzea. Esperientzia negatiboa izanez gero, horren arrazoia subjektutik kanpo kokatzen dute (azkarregi bultzatu zaitugu, ez dugu behar bezala egin lanketa...).

Frontoietan ez erretzea lortu da, eta **legearen bidez** lortu da. **Baina gehiengo baten konbentzimendua ere bazegoen**.

Ikastolek beraien **eredua sortu** zuten **eta ondoren hedatu egin da praktika positibo** eta urratzaile hori. Aldiz, gaur egun ETBn alderantzizko bidea jorratzen ari da.

Erasoen aurrean salaketa soziala, babesa antolatu dute emakumeek, ekologistek...

Korsikan, beraien seme-alabek kortsikera ikasterik nahi ez badute, aukera hori eskatu egin behar dute, orri batean adierazi behar dute. **Gehienek ez dute eskaera egiten, dagoenera moldatzen dira**.



● **Landu beharreko elementuak /arrakastarako gakoak**

Ahalduntzea eta konpromisoa. Konpromiso kolektiboak.

Ahalduntze pertsonaletik kolektiborako bidea lantzea

Aldaketa gertatzeko **motibazio altua** egon behar da abiapuntuan. Bestela, **derrigortasunak** eragindako aldaketa izan beharko da. Konpromisoa bere horretan ahula izan daiteke.

Eginez lortzen da. Eta **egiturak** berak asko markatzen du.

Kontzientzia behar da, estrukturak ez duelako beti balioko, ez delako beti aldekoa izango.

Bultzagileek markatu behar dute bidea, egiturak aldatzen joateko.

Batzuetan esplizitatu egin behar da eta beste batzuetan ez, inguruaren ezaugarrien arabera.

Inguruan eragiteko garrantzitsua izan daiteke egoera askotan.

Botere harremanek ere eragina dute, kontuan hartu behar dira.

Ahalduntzearen bidez lortzen da **kontzientzia handitzea eta jokabide urratzaileak sortzea**. Beste esparruetan eragiteko ere ahalduntze hori landu behar da.

Gaitasunaren alderdia albo batera uztea garrantzitsua da, ez du mesederik egiten euskaraz egiteko maila ona behar dela zabaltzeak. Tituluen **konplexuak kendu** eta **euskaldunon autoestima landu** behar dira.

Euskaldunon arteko ahalduntze gehiago behar dugu. Jokabide urratzaile gehiago behar dira, kopurua handitu behar da.

Gaur egungo gizartea ez dator bat ahaleginarekin, konpromisoarekin... ahalik eta errazena izan behar da gure bizitza. Eta beraz, **konpromisoa, borondatezko** ahalegina... **zaharkituta** daude. Kontuan hartu behar da **kontzeptu horiek indar gutxi** dutela gaur egungo gizartean.

Elkarrizketa asimetrikoen gaia zabaltzen ari da eta **indartu beharreko** elementua da. Ulermena dagoen kasuetan. Sinetsi behar da, **funtzionamendu sozial onartua** bihurtu behar da.

Maitasuna behar da. Errespetua behar da. Jendea erakarriko du horrek.

Pazientzia, baikortasuna eta goxotasuna.

Arrainontzi (**gune**) **txikiak landu** behar dira, **ondoren sinergiak** sortzeko.

Sinesmenak (aurreiritziak) berrikusi behar dira.

Bakoitzak bere **inguru hurbilean eragitea** garrantzitsua da. Eragin maila handiena hurbilean kokatzen da.

Inflexio puntua ez da Otik 10era. **Tarteko lorpenak azpimarratzea eta esplizitu egitea** positiboa da aldaketak sortzeko eta inguruan eragina izateko.

Konpromisoa egonez gero, abiapuntua ona da. Sarri eskaera jartzen da abiapuntuan eta ez da norberaren nahia. **Norberaren konpromisoa izan daitekeena ezagutu, ez dadila kanpo eskaera bat besterik izan.**

Onura ikustaraztea, onuraz jabetzea garrantzitsua da.

Noiz lortu dugu euskarara iristea? **Positibotik jotzea** komeni da. Egoera positiboez, **lorpenez, jabetzea** garrantzitsua da.

Motibazio instrumentala (hobeto ikusia izango naiz, gora egiteko balioko dit, beste bati laguntzeko...) **lantzeak** motibazio integrazionala (euskaraz bizi nahi dut) ere badakar.

Arrazoiak aztertu beharrean (konplexua da), **portaera berrian zentratzea eta sentimendu positiboetan kokatzea portaera berri hori. Fokoa aldatu**, arrazoietatik irten eta portaera berri hori beste motibo batzuetan kokatu.

Taldean egiteak indar handiagoa ematen dio norbanakoaren aldaketari.

Norbere taldeaz gain, **beste batzuk ere ezagutzea** garrantzitsua da. Ez zarela martziano bat, beste batzuk ere horretan ari direla jakitea. **Erreferentziak** ezagutzea.

Praktika positiboak probokatzea. Berriz **errepikatzeko** klabe bat da. **Eta esperientzia negatiboa izanez gero, arrazoiak ez jarri subjektuaren** beraren gain.

Lehenengo ezagutza behar da, gero baliabideak eskura izatea eta azkeni, babesa edo laguntza.

Praktika arau bidez egokitzea lortzen denean, horrek berak indartzen du diskurtsoa. **Baina beharrezkoa da inguruan konbentzimendua egotea.** Azpian egon arren, badagoen nahi bati erantzun behar dio arauak.

Diskurtsoan **guztion onura agertarazi** behar da. Hizkuntzaren inguruan ez dago ondo garatuta ikuspegi hori.

Inguruan eragiteko presio baliabideak sortu behar dira, zeintzuk izan daitezkeen pentsatu.

Erasoen aurrean babesa (iritzi soziala sortu) **antolatu** behar da.

Irizpide (arau) nagusiak euskararen aldekoak izateak asko errazten du norbanakoaren portaera.

Egoerez hitz egitea eta autobabesa sendotzea beharrezkoa da.

Topaguneak, kontseiluak lanketa soziala indartzea komeni da.

